**Los portavoces de los partidos abajo firmantes presentan la siguiente Moción Transaccional relativa a la servicio del Servicio de Ayuda Domiciliaria presentada por EH Bildu.**

MOTIBAZIOA / MOTIVACIÓN:
Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) izaera sozialeko zerbitzu publikoa da bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko helburua duena.
2015ean 4.843 pertsona artatu zituen zerbitzuak Gipuzkoan, horietatik 1.344 gizonezko eta 3.499 emakumezko; %30 autonomoa zen eta gainontzeko %70 mendekotasun egoeran zegoen.
Tradizionalki, familiaren barruan geratu izan da pertsona zainketaren ardura, bereziki emakumezkoen eskutan, generoak eragindako ezberdintasunak oraindik gehiago areagotzea ekarri duelarik.
2005ean Foru Aldundiak lankidetza hitzarmenak sinatu zituen lurralde udalekin ELZaren eskuordetze eta kudeaketa mandatuak bideratzeko mendekotasun egoeran zeuden pertsonei zerbitzua eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketaren arabera (mendekoak aldundientzat, autonomoak udalentzat).
Beraz, orain arte, zerbitzua udal araudiaren bidez antolatu eta arautu bada ere, Foru Aldundiak finantzaketaren zatirik handiena bermatu izan du, zehazki %70. Ondorioz, esan genezake ELZ administrazio ezberdinek parte hartzen duen gizarte baliabide garrantzitsu bat dela.
12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketa aldatu egin zuen. Horrela, 22. Artikuluan Lehen Mailako Arreta Zerbitzutzat jotzen da ELZ.
Eskumen banaketa hori gauzatzeko epeari dagokionez, legearen bigarren xedapen iraunkorrak urtebeteko epea ezartzen du. Hala ere, hirugarren xedapen iraunkorrak beste bi betebehar ezartzen ditu:

- Batetik, eskumen banaketaren ondorioz beharrezko finantza doiketa egitea herri-administrazioen artean "finantzaketa nahikorik bermatzeko".

- Bestetik, eskumen banaketa eta finantza doiketa berriak ezin duela ekarri zerbitzuaren intentsitatea eta estaldura jaistea.

Legearen aurreikusitakoari jarraituz, 2015eko urrian onartu zuen Jaurlaritzak zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 dekretua. Bertan honela definitzen da ELZ:

"Laguntza eta prebentzio izaerako zerbitzu bat da, eta mendekotasun egoeran edo mendekotasun arriskuan dagoen erabiltzaileari bere bizilekuan jarraitzen laguntzea, bizilekuan bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera emango dion etxeko arretarako eta arreta pertsonalerako laguntza bat da eskaintzea eta, era horretan, isolamendu egoerak saihestea du xede. Arreta pertsonala jasotzen dutenek edo mendekotasun arriskuan daudenek soilik lortu ahal izango dute etxeko arreta".
Era berean, 2016ko uztailean Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahaia eratu zen eta bere helburuetako bat da hain zuzen ere, udalen eta aldundiaren arteko elkarlanerako eta negoziaketarako mekanismo bat ezartzea, gizarte zerbitzuen legeak eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretuak ezarritako eskuduntza doikuntzatik eratorritako aldaketak adosteko.
Honela, mahaiak izandako azkeneko bileran batzorde bat eratzea onartu zen

ELZren finantzaketaren doikuntzarako proposamen bat lantzeko, eta baita beste batzorde tekniko bat ere ELZ hobetze aldera proposamen zehatzak landuko zituena.
Modu berean, EAEko 2016-2019 Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak zerbitzuen finantzaketaren doikuntza egiteko beharra azpimarratzen du, Gipuzkoan gertatzen den moduko egoerak ekiditeko, non administrazio maila bat beste maila bateri dagozkion zerbitzuak finantzatzen ari den. Plan honek argi esaten du egoera honetan dauden administrazioek doikuntza hau egin beharko dutela eta 2017tik aurrera administrazio bakoitzak berari dagozkion zerbitzuak finantzatzeko ardura izango duela.
El Servicio de Ayuda a Domicilio (SAD) es un servicio público de carácter social que tiene por objetivo el ayudar a que las personas con dificultades para continuar residiendo en su entorno natural.
En el año 2015, este servicio asistió a 4.843 usuarios en Gipuzkoa, de los cuales 1.344 eran hombres y 3.499 mujeres; el 30% eran autónomos y el 70% restante se encontraba en situación de dependencia.
Tradicionalmente el núcleo familiar se ha ocupado del cuidado de las personas y este cometido ha recaído sobre todo en las mujeres, acentuando aún más las diferencias por género.
El Departamento de Política Social de la Diputación de Gipuzkoa suscribió en el año 2005 convenios de colaboración con los ayuntamientos guipuzcoanos para la delegación y encomienda de la gestión del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado a personas calificadas como dependientes, de acuerdo a la distribución competencial establecido por el decreto 155/2001 del Gobierno Vasco (los dependientes son competencia de la diputación y los autónomos de los ayuntamientos).
A pesar de que hasta ahora este servicio de ha regulado a través de normativa municipal, la Diputación Foral ha garantizado la mayor parte de la financiación del SAD, concretamente el 70%. Es por ello que podemos afirmar que el SAD es un recurso social de gran importancia en la que participan distintas administraciones.
La Ley de Servicios Sociales 12/2008 modificó la distribución competencial establecido por el decreto 155/2001. De esta forma, en su artículo 22 califica el SAD como un servicio social de atención primaria y en su artículo 27, se establece que la provisión y la prestación de esos servicios se garantizarán desde los servicios sociales municipales, con la salvedad del servicio de teleasistencia, que recaerá en el Gobierno Vasco.
En relación al plazo para hacer efectiva esa distribución competencial, la disposición transitoria segunda establece el plazo de un año a partir de la entrada en vigor de dicha ley. Además, la disposición transitoria tercera establece otras dos obligaciones:
- Por una parte, como consecuencia de la distribución competencial se deberá realizar el correspondiente reajuste financiero entre las administraciones públicas vascas, con el fin de garantizar la "suficiencia financiera".
- Por otra parte, dicha redistribución competencial y dicho reajuste financiero en ningún caso podrán suponer una disminución en los niveles de intensidad y cobertura de las prestaciones y servicios existentes.
En aplicación de lo establecido en la ley, en octubre de 2015 el Gobierno Vasco aprobó el decreto de cartera de servicios sociales. En la misma se define el SAD de esta forma:
"Es un servicio de naturaleza asistencial y preventiva destinado a ayudar a la

persona usuaria en situación de dependencia, o riesgo de dependencia, a permanecer en su domicilio, ofreciéndole una ayuda de atención doméstica y personal que posibilite su desenvolvimiento en el propio domicilio y su integración en el entorno comunitario, evitando situaciones de aislamiento. Sólo podrán acceder a atención doméstica quienes reciban atención personal o se encuentren en riesgo de dependencia.
Del mismo modo, el julio de 2016 se creó la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Gipuzkoa y uno de sus objetivos es precisamente el crear un mecanismo para la colaboración y negociación entre los ayuntamientos y la diputación para consensuar los cambios derivados del reajuste competencial establecidos por la ley de servicios sociales y el decreto de cartera.
Así, en la última reunión mantenida por la mesa se acordó la creación de una comisión de trabajo que elaborara una propuesta de reajuste financiero del SAD, y también la creación de otra mesa técnica que trabajara en hacer propuestas concretas para mejorar el SAD.
Del mismo modo, el Plan estratégico de los Servicios Sociales 2016-2019 de la CAV subraya la necesidad de realizar un reajuste financiero de los servicios para evitar situaciones como las que se producen en Gipuzkoa, donde un nivel de administración está financiando competencias que corresponden a otro nivel de administración. Este plan deja claro que las administraciones que se encuentren en esta situación deberán realizar este reajuste y que a partir del 2017 cada administración deberá hacerse cargo de financiar los servicios que le corresponden.

Zerbitzu honek izugarrizko garrantzia duela ikusirik, ondorengo mozioa onar dezala eskatzen diogu Lasarte-Oriako udaleko udalbatzari.

PROPOSAMENA / PROPUESTA:

1- Lasarte-Oriako Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela aldarrikatzen du, besteak beste, pertsona bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko bermatzen laguntzen duelako.

1. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria manifiesta que el Servicio de Ayuda a Domicilio constituye un servicio indispensable para el cuidado de la persona, porque, entre otros motivos, contribuye a garantizar que la persona siga viviendo en su entorno natural.

2- Lasarte-Oriako Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren garapen zein hobekuntzaren aldeko aldarria egiten du.

2. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria apuesta por el desarrollo y la mejora del Servicio de Ayuda a Domicilio.

3- Lasarte-Oriako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundari eskatzen dio, honako alderdi hauek adosteko:

-Gipuzkoako Foru Aldundiak bertan behera utz dezala behin betiko aurreko legealdian onartutako

3. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa, a que acuerde las siguientes medidas:

-Que la Diputación Foral de Gipuzkoa deje sin vigor de manera definitiva el "Plan de mejora de la atención a la dependencia en

"Mendekotasunaren Arreta Hobetzeko Plana 2013 - 2016".

-Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Mahai arloan, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen finantzaketa sistemaren egokitzapen berriaren inguruan eta eskumen banaketa berriarekin bat, akordio batetara iris daitezen.

-Gipuzkoako Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuaren hobekuntza bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.
-Etxez-etxeko ohiko arretan soluzio berrien ezartzea ahalbideratuko dituzten proiektu berritzaileak martxan jar ditzaten.

Gipuzkoa 2013-2016" aprobado por el anterior equipo de gobierno.

-Que, en el marco de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Gipuzkoa, alcancen un acuerdo respecto al nuevo reajuste financiero del sistema de servicios sociales del Territorio Histórico de Gipuzkoa de acuerdo con la nueva distribución competencial.

-Que adopten las medidas necesarias para garantizar la mejora del Servicio de Ayuda a Domicilio en Gipuzkoa.

-Que pongan en marcha proyectos de innovación que permitan implantar nuevas soluciones a la atención domiciliaria tradicional.

**PSE-EE** **EAJ-PNV**